



Diru-sarrerak fundazio-  
xedeetan erabili beharra eta  
administrazio-gastuen muga  
betetzeari buruzko gida

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio  
Erregistroetako Zuzendaritza

2021EKO EKAINA



## AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
GIDA HONEN HELBURUA.....	3
NOLA DAGO ANTOLATUTA GIDA HAU? .....	3
I. KAPITULUA: Kontzeptuak.....	4
II. KAPITULUA: Kalkula dezagun diru-sarrerak fundazio-helburuetan erabiltzeko betebeharra: metodologia eta prozedura.....	8
III. KAPITULUA: Administrazio-gastuen muga kalkulatzeko metodologia eta prozedura .....	9
IV. KAPITULUA: Arauak.....	10
1. ERANSKINA: Diru-sarrerak fundazio-xedeetarako erabiltzeko betebeharrari buruzko informazio-taulak .....	11
2. ERANSKINA: Administrazio-gastuen koadroa .....	13
3. ERANSKINA: Adibide praktikoak:	
1. KASUA) Ikerketarako funtsak biltzen dituen fundazioa .....	14
2. KASUA: Ondare-fundazioa.....	21
3. KASUA: Kultur Fundazioa (museoa) .....	26
4. KASUA: Hirugarren adinekoentzako laguntza-fundazioa/egoitza.....	32
5. KASUA: Beste fundazio hau Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean integraturik dago .....	37
6. KASUA: Beste fundazio hau elkartasun-lanetan eta garapenerako lankidetzan aritzen da.....	42



## **AURKEZPENA**

Fundazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, eta ondarea, gainera, fundatzaileek hala nahi izan dutela-eta, interes orokorreko helburu jakin batzuetarako lotuta daukate, denbora luzerako.

Fundazioen sektorea etengabe ari da hazten, eta ez gutxi gainera. Benetan garrantzi handia du bai gizarterako bai ekonomiarako, eta gaur egun inork ez du zalantzan jartzen zer-nolako ekarpena egiten duen ongizate publikorako eta interes orokorra edo ongizate erkidea lortu ahal izateko. Agintari publikoak berak ere saiatu dira indarra ematen, politika publikoak baliatuz, besteak beste zerga-politika, hartara horrelako erakundeek trataera berezia eta erakargarria izan dezaten.

Bide horretan, ordea, badira bete beharreko baldintza batzuk, hala erabakita baitago fundazioen legean eta horrelako erakundeetan aplikatzen den zerga-esparruan; esate baterako, urteko kontuak aurkeztu behar dira eta errenta eta diru-sarrerren gutxienez % 70 fundazio-xedeetarako erabili behar da. Urteko kontuen memorian ere erakutsi behar da bete dela azken baldintza hori.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzaren lana da (aurrerantzean, Zuzendaritza) fundazioen gaietan aholkularitza eta informazioa eskaintzea, eta begiratzea eta egiaztatzea fundazioek beren dirubideak benetan erabiltzen dituztela estatutuetan agindurik dauzkaten interes orokorreko xedeetarako eta ez dutela gainditzen administrazio-gastuen muga, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari (aurrerantzean, Babeslaritza) esleitutako funtzioekin bat etorritik. Funtzio horiek bi arau hauetan ditu esleiturik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean (9/2016 Legea, ekainaren 2koa, 49. eta 51. artikulua), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Dekretuan (115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, 9. eta 12. artikulua).

Zuzendaritza horren helburuetara begira jarrita, berriz, guztien artean bi behintzat aipatuko ditugu: zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzea; eta administrazio-kargak gutxitzea, orokorrean herritar guztiei eta, xeheago jota, fundazio, elkarte eta elkargoei. Bide horretan, aurrerantzean ere jarraitu beharko dugu sortzen formularioak, inprimakiak eta beste administrazio-dokumentu batzuk, gure zerbitzua darabilen jendarteari lana errazteko. Eta, hona iritsita, jo dezagun erregistro-datuak ziurtatzeko eredura eta begira dezagun III. eta IV. eranskinetan ([www.euskadi.eus/registros](http://www.euskadi.eus/registros) ataria). Bi koadro orientagarri aurkituko ditugu; bada, halakoak erabiliko ditugu azaldu behar dugunean baietz -gure betebeharra baita-, diru-sarrerak fundazioaren helburuetarako erabiltzen ditugula eta ez dugula gainditzen administrazio-gastuen muga.



## **GIDA HONEN HELBURUA**

Zuzendaritzari egoki iruditu zaio gida hau egitea, Euskadiko Fundazioen eta Elkarteen Erregistroan inskribituta dauden euskal fundazioei eta onura publikokotzat jotako elkarteei laguntzeko tresna izan dadin, haien idiosinkrasia eta jarduteko modua errespetatuz. Era berean, iritzita zegoen marko metodologikoa baten beharra zegoela, errazago kalkulatzeko zenbateraino betetzen ditugun aipatu bi baldintzak: diru-sarrerak fundazio-helburuetan erabili beharra eta administrazio-gastuen muga gainditu ezina.

Esana dugu Babeslaritzaren ardura dela fundazioen sektoreari aholkularitza ematea eta hura begipean edukitzea; bada, zeregin horretan, aztertu dituen fundazioetan ikusi duenez, kontuak azaltzeko informazioa eman behar dutenean, bi ahulgune errepikatzen dira gehien: diru-sarrerak fundazio-helburuetan erabili beharraz informatzea, eta administrazio-gastuen berri ematea.

Babeslaritzak lehentasunezkoztat jo du fundazioen garrantzia aitortzea, baina ez soilik, erakundeak begipean edukiz eta haiek gobernatuz eta ikuskatuz -zerbitzu publiko hori ere bete behar baitu-, beste era bateko ekintzak sustatuz eta hedatuz baizik, aholkularitzarekin, fundazioen sektorearen hedapenarekin eta haren sareekiko lankidetzarekin lotuta. Horregatik guztiagatik, gida honek helburu hauek ditu:

- Kalkulu-metodologia homogeneizatzea.
- Kontuak ematen dituztenean antzeman zaizkien informazio-ahuleziak murriztea.
- Gogoeta bultzatzea ikusteko nolako gastuak bideratzen diren fundazio-helburua betetzera eta nolakoak administraziorako.
- Erakunde horien jardunbide egokiak, gardentasuna eta gobernu ona sustatzea.

## **NOLA DAGO ANTOLATUTA GIDA HAU?**

Gida hau ikuspegi teoriko-praktikotik jorratu dugu. Horregatik, bi multzo handitan egituratuta dago: alde batetik, kontzeptuak eta metodologia, alegia, aipatu dugun koadroa gogoan dugularik (diru-sarrerak fundazio-xedeetan erabili beharra eta administrazio-gastuen muga gainditu ezina betetzen dela erakusteko koadroa), ikusiko dugu zer definizio eta irizpide erabili behar diren kalkulua egiteko; eta, bestetik, haren aplikazio praktikoa garatu eta aztertzen da, sei jardueraren emu desberdin planteatuz.

- I. kapitulua: Kontzeptuak: definizioak eta kontzeptuak.
- II. kapitulua: Kalkula dezagun diru-sarrerak fundazio-helburuetan erabiltzeko betebeharra: metodologia eta prozedura.
- III. kapitulua: Administrazio-gastuen muga kalkulatzeko metodologia eta prozedura
- IV. kapitulua: Arauak.
- 1. eranskina. Diru-sarrerak fundazio-helburuetarako erabiltzeko betebeharraren koadroa.
- 2. eranskina. Administrazio-gastuen koadroa.
- 3. eranskina. Adibide praktikoak:
  1. KASUA) Ikerketarako funtsak biltzen dituen fundazioa.
  2. KASUA) Ondare-fundazioa.



3. KASUA) Kultur Fundazioa-Museoa.
4. KASUA) Adinekoentzako laguntza-fundazioa/Egoitza.
5. KASUA) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko fundazio bat.
6. KASUA) Garapenean laguntzeko fundazioa.

## **I. KAPITULUA: KONTZEPTUAK**

### **1. Emaizta-kontuko diru-sarrerak.**

Fundazioek bi bidetatik lortu ahal izango dituzte diru-sarrerak: egiten dituzten jardueretatik, edo ematen dituzten zerbitzuetatik. Bere helburuak garatzeko, berriz, fundazioa beste bi bideetatik finantzatu da: ondareak ematen dizkion etekinetatik, eta edozein baliabide publiko edo pribatutatik datozkion etekinetatik.

Fundazio-helburuak betetzera bideratu beharko du (edo xedeak, gauza bera baita), gutxienez, emaitzen kontuko diru-sareren % 70 (kontzeptu guztiak batuta). Baina, zein dira emaitza-kontuko diru-sarrerak?

#### a) Zuzenean ekitaldiko soberakinera egotzitako sarrerak:

- Jarduera propioaren diru-sarrerak.
- Salmentak eta merkataritza-jardueretatik datozen beste diru-sarrera batzuk.
- Izakinetan izandako bariazioak.
- Erakundeak bere aktiborako egindako lanak.
- Jarduerak dakartzan beste diru-sarrera batzuk.
- Ekitaldiko emaitzara transferitutako diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-ondareak.
- Hornidura-soberakinak.
- Narriadura eta ibilgetuaren besterentzeak dakarren emaitza.
- Sarrera finantzarioak.
- Finantza-tresnen arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak.
- Kanbio-diferentziak.
- Finantza-tresnak besterentzeak dakarren narriadura eta emaitza.

#### b) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrerak:

- Aktibo finantzario salgarrietatik eta diru-fluxuak estaltzeko eragiketetatik sortutako sarrerak.
- Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak.
- Irabazi aktuarialak.
- Irizpideak aldatzeagatik edo akatsengatik egiten diren doikuntzak.
- Fundazioaren zuzkidurarako ekarpenak.
- Beste ondare-gehikuntza batzuk.

Sarrera horien batura izango da hasierako kalkulu-oinarria (**1. eranskineko A** atala)

### **2. Kalkulu-oinarrian sartzen ez diren diru-sarrerak**



Diru-sarrerak fundazioaren helburuetarako erabili beharra betetzen den kalkulatzeko orduan, sarrera hauek ez dira diru-sarreratzat hartuko (kalkulu-oinarritik ken daitezke):

- a) Fundazioa eratzeko unean edo gerora ondare-hornidura gisa egindako ekarpenak.
- b) Fundazio-zuzkidura osatzen duten ondasun higiezinak besterentzeak dakartzan diru-sarrerak, baldin eta eskualdatzean lortutako zenbatekoa zuzkidura-jiteko ondasun edo eskubideetan edo afektazio bera dutenetan berrinbertitzen bada.
- c) Zuzkiduran integratuta dauden ondasunak eta eskubideak kostu bidez eskualdatzeak dakartzan diru-sarrerak, baldin eta eskualdatzean lortutako zenbatekoa zuzkidura-jiteko ondasun edo eskubideetan edo afektazio bera dutenetan berrinbertitzen bada.
- d) Fundazioaren helburuetara zuzenean eta modu iraunkorren atxiki diren ondasunak xedatuz edo kargatuz etorri diren diru-sarrerak, baldin eta eskualdatzean lortutako zenbatekoa zuzkidura-jiteko ondasun edo eskubideetan berrinbertitzen bada edo afektazio bera badute.

Amortizazioetarako zuzkiduren gastuak eta narriaduragatiko galerak (eta hornidurak) ez direnez fundazio-xedeetara bideratutako gastutzat hartuko, honako hauek ere ez dira diru-sarreratzat hartuko:

- Ekitaldiko soberakinera aldatutako diru-laguntza, dohaintza eta kapital-legatuetatik datozen diru-sarrerak, baina oinarri sistematiko eta arrazional batean oinarrituta beharko du izan, diru-laguntza, dohaintza edo legatu horietatik datozen amortizazio-gastuekiko korrelazioan.
- Hornidura-soberakinetatik eta narriaduraren lehengoratzetik datozen sarrerak.

Memorian, fundazioek xehe-xehe jaso behar dute kalkulu-oinarritik kendutako kontzeptuei eta diru-sarreren kontuei buruzko informazioa, eta zer irizpide jarraitu duten ere azaldu behar dute, behar bezain ondo (**1. eranskineko (B)** atala).

### 3. Diru-sarrerak lortzeko egin behar diren gastuak

Fundazioak, gastu batzuk, diru-sarrerak lortzeko egiten ditu; bada, diru-sarrerak fundazio-helburuetarako erabiltzeko obligazioa betetzen den kalkulatzeko, emaitzen kontuko diru-sarreretatik kendu egin ahal izango dira gastu horiek.

Alde horretatik, diru-sarrerak lortzen laguntzen duten gastuak bakarrik kendu beharko lirateke. Babesletzaren irizpidea da diru-sarrerekin lotuta dauden beharrezko gastuak ken daitezkeela, hau da, diru-sarrerak lortzera bideratutakoak edo normalean hartara lotutakoak. Hona hemen, adibide gisa, diru-sarrerak lortzeko beharrezkotzat eta, beraz, kengarritzat jotzen diren gastu-kontzeptu batzuk:

- Publizitatea eta funtsak lortzea.
- Merkataritzako langileen eta funtsak lortzeko langileen soldata.
- Merkataritza-jarduerarekin lotutako gastuak (ikus 5. atala: Jarduera propioa eta merkataritza-jarduera).
- Hirugarrenei errentan emandako higiezinekin lotutako gastuak, finantza- eta tributuzko gastuak barne.



- Kapital-merkatuan diharduten langileen soldata.
- Banku-komisioak; eta diru-sarrerak handitzen laguntzen duten inbertsioekin lotutako beste finantza-gastu batzuk.
- Finantza-tresnen, aktibo finantzario salgarrien eta diru-fluxuak estaltzeko eragiketen arrazoizko balioa aldatu izanak dakartzen galerak.

Diru-sarrerak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren gastu-kontzeptuen tipologia, oro har, zentzu hertsian interpretatu behar da, alegia, fundazioaren helburua edo interes orokorra betetzearekin zuzenean lotuta ez dauden baina diru-sarrerak lortzen laguntzen duten gastuak soilik hartu behar dira horrelako gastutzat. Ildo horretan, beharrezko gastutzat hartu ahal izango da kanpoko zerbitzuengatiko gastuen, langile-gastuen, bestelako kudeaketa-gastuen, finantza-gastuen eta tributuen zati proportzionala, baldin eta urteko kontuen memorian behar bezala justifikatzen bada zer ekarpen egin duten diru-sarrerak lortzeko.

Horri dagokionez, jarraian, ikus ditzagun, labur-labur, diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak diren gastuekin lotutako oinarritzko arauak:

- ✓ Diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak diren gastuak kalkulu-oinarritik kengarri direla joko da.
- ✓ Era berean, diru-sarrerak lortzeko beharrezko gastuak ez dira hartuko fundazio-helburuetara bideratutako gastutzat.
- ✓ Administrazio-gastuak ezin dira kalkulu-oinarritik kendu.
- ✓ Amortizazioetarako zuzkiduren gastuak eta narriaduragatiko galerak ez dira kalkulu-oinarritik kengarritzat hartuko.

Horregatik guztiagatik, diru-sarrerak lortzeko beharrezkotzat jotzen diren gastuei dagokienez, fundazioek beharrezkoa dute memorian informazio zehatza sartzea kontuan hartu dituzten gastu-kontzeptuei eta -kontuei buruz, egozpen-irizpidea behar bezala azalduz (**1. eranskineko C)** atala).

#### 4. Fundazio-helburuak betetzera bideratutako gastuak

Fundazioaren helburuetara bideratutako gastutzat hartuko dira helburu horiek betetzen benetan lagundu duten gastuak, hau da, zuzenean fundazioaren helburua betetzera lotutako gastuak.

Ildo horretan, fundazioaren helburuak betetzera bideratutako gastuak arrazoizkoak diren zehazteko, fundazioaren estatutuetan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

Beraz, fundazioaren helburuak betetzera bideratutako gastuez den bezainbatean, fundazioek memorian ondo zehaztuta utzi beharko dute, informazio zehatza emanez, zer gastu-kontzeptu eta -kontu hartu dituzten kontuan, egozpen-irizpidea behar bezala azalduz.

#### 5. Jarduera propioa eta merkataritza-jarduera

Fundazioek jarduera propioak eta merkataritza-jarduerak egin ahal izango dituzte.



Jarduera propiotzat ulertzen da fundazioak bere fundazio-helburuak betetzeko egindakoa, betiere interes orokorraren aldeko asmoz, irabazi-asmorik gabe, eta aintzat hartu gabe prestazioa edo zerbitzua dohainik edo ordain baten truke egiten den.

Merkataritza-jardueratzat ulertzen da, berriz, fundazioek ekoizpen- eta giza baliabideak beren kabuz antolatzea, edo bi arlo horietatik bat antolatzea, baina betiere helburua izanik ondasun edo zerbitzuen ekoizpenean edo banaketan esku hartzea, hartara dirua irabaztearren. Edonola ere, helburuak fundazio-xedeekin loturik egon behar du, edo haien osagarri edo lagungarri izan, eta, hori bai, lehia defendatzeko arauen mende behar du izan.

Fundazioak bilakaera nabarmena ari dira izaten. Euskal gizartearen gizarte- eta kultura-premia aldakorretara eta kohesio-premia aldakorretara egokitu diren neurrian, pertsona juridiko horien jarduera-esparruaren mamia ez da, nahitaez, prestazioaren edo zerbitzuaren doakotasuna. Izan ere, garai batean, dena delako fundatzaileak ondare bat fundazioaren esku uzten zuen, ongintza-lanerako, eta fundazioak ondare hori horretarako kudeatu, horixe egiten zuen. Baina, fundazioek, orain -interes orokorraren alde betiere-, merkataritzan eta enpresen munduan ere zeresan handia daukate.

Hala, fundazio asko merkatuko operadore ekonomikoak dira, eta ordainpeko zerbitzuak eskaintzen dituzte, hala nola prestakuntza, hezkuntza, zerbitzu soziosanitarioak, zerbitzu teknologikoak eta aholkularitza edo laguntza teknikokoak. Edonola ere -eta Babeslaritzak azpimarra jarri nahi du hemen-, kasu horietan, alegia, merkataritzan jardunez betetzen direnean fundazio-helburuak, edo merkataritza-jarduerak ere badarabiltza xede horien osagarri, ziurtatu behar da dena delako jarduerak ez dituela helburuak hutsaltzen, eta ez da inoiz ahaztu behar jarduerok interes orokorraren edo ongizate erkidearen zerbitzura daudela, hori baita fundazioaren izate-arrazoia.

Nola jakin, ordea, merkataritza-jarduera bat propiotzat har daitekeen, garbi edukitzeko fundazio-helburuetara loturik dagoela? Bada, jarduera horrek gizarte osoari eskaini beharko dizkio onurak, eta pertsona fisiko edo juridikoen kolektibitate generikoei egin beharko die mesede, hau da, fundatzaileekin zuzenean lotuta ez dauden pertsoneri, horrexek bereiziko baitu antzeko jarduerak dituzten baina beste entitate juridiko batekoak diren beste erakunde batzuetatik.

Merkataritza-jarduerak ez baditu betetzen jarduera berezko edo propiotzat hartzeko baldintzak eta, hortaz, ezin bada hartu fundazioaren helburuei lotutako jardueratzat, pentsatuko da jarduera horren gastuak beharrezkoak direla diru-sarrerak lortzeko, eta ezingo da pentsatu gastu horiek fundazio-helbururako balio dutenik. Gastu horiek, kasu horretan, zerbitzuak ematearekin zerikusia izango dute, edo diru-sarrerak lortzera egongo dira bideratuta edo normalean lotuta, eta, hortaz, kalkulu-oinarritik kendu egin beharko lirateke, eta jarduera horretatik lortutako etekinak fundazio-xedeetara bideratu beharko lituzke fundazioak.

## 6. Administrazio-gastuak

Administrazio-gastuak izango dira: fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoa, bai eta patronatuko kideek beren karguak





betetzeagatik egindakoak ere, baldin eta itzul dakizkien eskubidea badaukate lege honen arabera.

Honako hauek izango dira administrazio-gastuak:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen zaintza, kudeaketa eta defentsak zuzenean sortutako gastuen zenbatekoa.
- b) Gobernu-organoko kideek beren funtzioetan aritzeagatik izandako eta behar bezala egiaztatutako gastuen diruaren itzulketa eta, hala badagokio, fundatzaileak kideentzat berariaz ezarritako ordainsariak.
- c) Gerentzia- edo kudeaketa-lana egiten duten edo fundazioaren izenean beste jarduera batzuk egiteko arduraren funtzioko langileen ordainsariak.

Hona hemen, adibide gisa, administrazio-gastutzat jotzen diren zenbait kontzeptu:

- a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen zaintza, kudeaketa eta defentsak zuzenean sortutako gastuen zenbatekoa.
  - Administrazio-ko, giza baliabideetako eta idazkaritzako langileen soldata.
  - Aholkularitza (kudeaketa-arlokoa, kontabilitatekoa, laborala, legezkoa eta fiskala), kontsultoria (antolaketa, kalitatea, datuen babesa, marketina, informatika, inbertsioa, ondarea, itzulpena, etab.), auditoretza eta beste zerbitzu profesional independente korporatibo batzuk, edo ondarearekin zerikusia dutenak, edo azken onuradun edo erabiltzaileari zuzendutako programa espezifikoekin lotura zuzenik ez dutenak (tasazioak, bat-egiteak, berregituraketak, etab.).
  - Helburuetara atxiki gabeko ibilgetuarekin edo azken onuradun edo erabiltzaileari zuzendutako programa espezifikoekin zuzenean lotu gabeko ibilgetuarekin lotutako gastuak: finantzarioak, tributuak, administrazioa, segurtasuna, konponketak, hornidurak ...
  - Helburuetara atxikitako eta azken onuradun edo erabiltzaileari zuzendutako programa espezifikoekin zuzenean atxikitako ibilgetuarekin lotutako aseguru-kontratuen primen gastuak.
  - Inbertsio finantzarioekin lotutako diru-sarrerak handitzen laguntzen ez duten gastu finantzarioak (mantentze-komisioak, ekintzak edo inbertsio-funtsak zaintzea ...)
- b) Gobernu-organoko kideek beren funtzioetan aritzeagatik izandako eta behar bezala egiaztatutako gastuen diruaren itzulketa eta, hala badagokio, fundatzaileak kideentzat berariaz ezarritako ordainsariak.
  - Gobernu-organotako langileen gastuak.
  - Dietak, gastu justifikatuak, ordainsariak.
  - Fundatzaileak testamentuan hitzartutako gastuak.
- c) Gerentzia- edo kudeaketa-lana egiten duten edo fundazioaren izenean beste jarduera batzuk egiteko arduraren funtzioko langileen ordainsariak.
  - Gerentziako langileen soldata.
  - Kontrolatzailearen soldata (controller).



Hona hemen, laburbilduta, administrazio-gastuen inguruko oinarriko arauak:

- ✓ Administrazio-gastuak ezin dira kalkulu-oinarritik kendu.
- ✓ Administrazio-gastuak ez dira hartuko fundazioaren helburuetara bideratutako gastutzat.

### 7. Fundazio-helburuak betetzeko inbertsioak

Fundazio-helburuak betetzen benetan lagundu duten inbertsioak helburu horietara bideratutzat joko dira.

Diru-sarrerak fundazio-xedeetara bideratzeko obligazioa kalkulatzeko, zuzenean fundazio-xedeetara lotutako inbertsioak hartu beharko dituzte kontuan fundazioek, gogoan hartuta -irizpidez- gauzatu diren ekitaldira egotzi behar direla inbertsioak, eta begiratu gabe baliabide propioekin finantzatu ote diren, edo palanka-efektua erabiliz, edo diru-laguntzen, dohaintzen edo kapital-legatuen bitartez.

Gerta daiteke emaitzen kontuan zuzkidura batzuk amortizazioetarako eta narriadura-galeretarako erregistraturik agertzea, baina ezin izango dugu -irizpidez- fundazio-xedera bideratu direla jo, bestela inbertsio bera xede horietara bi bider bideratu dela pentsatu beharko baikenuke.

### 8. Fundazio-xedeak betetzera bideratzen ez diren gastuak eta inbertsioak

Erakundearen jardunerako ezinbestekoak dira, baina ez dira zuzenean fundazioaren helburua betetzeko erabiltzen, gastu orokorrak edo egiturazkoak direlako (finkoak), eta ez daudelako zuzenean lotuta azken onuradun edo erabiltzaileentzako programa espezifikoekin. Alegia, kontu egin dezagun beste gauza guztiz ezberdin batean jarduten duela erakundeak, bada, orduan ere, gastu horiek hortxe izango lituzke.

Gastu hauek, zehazki, ez da joko fundazioaren xedeetara bideratuta daudenik:

- amortizazioetarako zuzkidurak.
- narriadura-galerak.
- administrazio-gastuak.
- diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak diren gastuak, merkataritza-jarduerekin lotutako gastuak barne.

## **II. KAPITULUA: KALKULA DEZAGUN DIRU-SARRERAK FUNDAZIO-HELBURUETAN ERABILTZEKO BETEBEHARRA: METODOLOGIA ETA PROZEDURA.**

### 1. Kalkulua egiteko metodologia eta prozedura.

Diru-sarrerak fundazio-helburuetan erabiltzen direla azaltzeko -derrigor egin behar baita-, koadro batzuk bete beharko dira. [www.euskadi.eus/registros](http://www.euskadi.eus/registros) atarira jo, erregistro-datuak ziurtatzeko eredura sartu, eta hor ikusiko dugu, III. eranskinean, fundazioek kontuen memorian zer informazio eman behar duten, hain zuzen ere "Urteko kontuen aurkezpena" izapidean.

Diru-sarrerak fundazio-helburuetara bideratzeko obligazioa kalkulatzeko, prozedurak eskema honi jarraitu behar dio, betiere KONTZEPTUEN I. kapitulu aztertu berritik urrundu gabe:

- i. Goazen zutabe honetara: "Emaitzen kontuko diru-sarrerak guztira".



"Emaitzen kontuko diru-sarrerak guztira **(A)**" zutabea (ikus **1. eranskin**eko eredia), emaitzen kontuan erregistratutako diru-sarreraren batura adierazi beharko da, hau da, bai ekitaldiko soberakinean erregistratutakoak bai zuzenean ondare garbira egotzitakoak.

ii. "(-) Oinarrian sartu gabeko sarrerak" zutabea.

Emaitzen kontuan erregistraturik dauden diru-sarreraren artetik, batzuk oinarritik kentzeko modukoak izango dira; bada, haien batura egin, eta emaitza "(-) Oinarrian sartu gabeko sarrerak **(B)**" zutabea adierazi behar da (ikus **1. eranskin**eko eredia).

Era berean, kalkulu-oinarritik kendutako diru-sarreraren kontzeptuei eta kontuei buruzko xehetasuna sartu beharko da, eta jarraitutako irizpidea ere behar bezala azaldu beharko da.

iii. "(-) Diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak diren gastuak" zutabea.

Emaitzen kontuan erregistraturik dauden gastuen artetik, batzuk oinarritik kentzeko modukoak izango dira; bada, haien batura egin, eta emaitza "(-) Diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak diren gastuak **(C)**" zutabea adierazi behar da (ikus **1. eranskin**eko eredia).

Era berean, kengarritzat jotzen diren gastu-kontzeptu eta -kontuei buruzko informazio xehatua sartu beharko da, egozpen-irizpidea behar bezala azalduz.

iv. "Xedea gauzatzeko erabilitako baliabideak" zutabea.

Gastu eta inbertsioen artetik, fundazio-xedera bideratutakotzat jo direnen batuketa egin, eta emaitza "Fundazio-xedea gauzatzeko erabilitako baliabideak (gastuak eta inbertsioak) **(D)**" zutabea adierazi (ikus **1. eranskin**eko eredia).

Era berean, fundazioaren helburua betetzera bideratutako gastu eta inbertsioen kontzeptuei eta kontuei buruzko informazio zehatza eman beharko da, egozpen-irizpidea behar bezala azalduz.

v. "Aplikatzeko dagoen zenbatekoa" zutabea.

Zer epe dago diru-sarrerak fundazio-xedeetan erabili behar hori betetzeko? Diru-sarrerak lortu direneko ekitaldiaren hasieratik, ekitaldi hori itxi ondotik hiru urte igaro arte. Ildo horretan, irizpidea izango da aurreko ekitaldietan aplikatzeko dauden zenbatekoak (defizitak) konpentsatzeko erabiltzea lehentasunez gastuak. Lehenik eta behin, ekitaldi zaharrenetako defizitak konpentsatuko dira; eta, soberakina, uneko ekitaldiko fundazio-xedea betetzeko gastu edo inbertsio gisa zenbatuko da. Ekitaldi batean aplikatutako ehuneko hirurogeita hamarrekoren soberakinak ezingo du konpentsatu hurrengo ekitaldietan aplikatzeko dagoen saldoa.

### **III. KAPITULUA: ADMINISTRAZIO-GASTUEN MUGA KALKULATZEKO METODOLOGIA ETA PROZEDURA**

Administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gainditu kopuru hauetako handiena: funts propioen % 5 edo fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarreraren % 20. Emaitzen kontua



kalkulatuko da kontzeptu guztiak aintzat hartuta, behin diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kendu ondoren.

Administrazio-gastuen muga betetzen dela azaltzeko -derrigor azaldu behar baita-, koadro batzuk bete beharko dira. [www.euskadi.eus/registros](http://www.euskadi.eus/registros) atarira jo, erregistro-datuak ziurtatzeko eredura sartu, eta hor ikusiko dugu, IV. eranskinean, fundazioek kontuen memorian zer informazio eman behar duten, hain zuzen ere “Urteko kontuen aurkezpena” izapidean.

Ildo horretan, administrazio-gastutzat hartzen diren gastu-kontzeptu eta -kontuei buruzko informazio xehatua sartu beharko da, egozpen-irizpidea behar bezala azalduz (ikus ereduak **2. eranskinean**). Jarraitu beharreko irizpideak ikusteko, joan gida honetako I KAPITULURA: KONTZPETUAK, eta begiratu **6. Administrazio-gastuak** atalean.

#### **IV. KAPITULUA: ARAUAK**

Diru-sarrerak fundazioaren helburuetarako erabili beharraz eta administrazio-gastuen mugaz informatzeko betebeharraz den bezainbatean, hauek dira indarrean dauden arauak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legeko 29 artikulua (9/2016 Legea, ekainaren 2koa).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen Dekretuko 30, 31 eta 33. artikulua (115/2019 Dekretua, uztailaren 23koa).
- 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenak, Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Erakundearenak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen eta irabazi-asmorik gabeko erakunde txiki eta ertainen kontabilitate-planak onartzen dituztenak.
- 1491/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak eta irabazi-asmorik gabeko entitateen jarduera-planaren ereduak onartzen dituena.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzko foru-arauak (16/2004 Foru Araua, uztailaren 12koa, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoa (Araba); 4/2019 Foru Araua, martxoaren 20koa, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoa (Bizkaia); 3/2004 Foru Araua, apirilaren 7koa, irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzkoa (Gipuzkoa)).
- Fundazioen 50/2002 Legea, abenduaren 26koa.



**1. ERANSKINA Diru-sarrerak fundazio-xedeetarako erabiltzeko betebeharrari buruzko informazio-etaulak**

Ekitaldia	Emitzen kontuko diru-sarrerak guztira (A)	(-) Oinarrian sartuta ez dauden diru-sarrerak (B)	(-) Diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak diren gastuak (C)	= KALKULU-OINARRIA (E)	Bideratu beharreko gutxieneko errenta	%	Fundazioaren helburuak gauzatzeko erabilitako baliabideak (gastuak eta inbertsioak) (D)	Helburuak betetzeko bideratutako baliabideak aplikatzea				
								2017	2018	2019	2020	Aplikatzeko dagoen zenbatekoa
2017	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	70%						0,00
2018	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	70%						0,00
2019	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	70%						0,00
2020	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	70%						0,00



Diru-sarrera (B) eta gastu (C) hauek kendu, eta KALKULU-OINARRIA daukagu; XEHETASUNA:

Kontu-zenbakia	Emitzen kontuaren partida	Gastuaren/Diru-sarreraren zenbatekoa	Egozte-irizpidea (%)	Kontzeptua, deskribapena eta motibazioa	2020ko zenbateko kengarria	2019ko zenbateko kengarria
<b>GUZTIRA</b>						

(D) Ekitaldian aplikatutako baliabideak:

Kontu-zenbakia	Emitza-kontuaren partida/Balantzearen partida	Gastuaren/Inbertsioaren zenbatekoa	Egozte-irizpidea (%)	Kontzeptua, deskribapena eta motibazioa	2020an aplikaturiko zenbatekoa	2019an aplikaturiko zenbatekoa
<b>A) Helburuak betetzeko gastuak</b>					<b>Guztira</b>	
<b>b) Helburuak betetzeko inbertsioak</b>					<b>Guztira</b>	
<b>GUZTIRA (a) + b)</b>						

**2. ERANSKINA Administrazio-gastuen koadroa****KALKULU-OINARRIA (E)****FUNTS PROPIOAK:***Administrazio-gastuen zenbatekoak ezin izango du gainditu beste zenbateko hauetatik handiena:***FUNTS PROPIOEN % 5:**a) **KALKULU-OINARRIAREN %20:**b) 

Beraz, administrazio-gastuek ezingo dute gainditu:

**Administrazio-gastuen muga:****Administrazio-gastuak guztira:****(1)** MUGA **GAINDITZEN DU** / **EZ DU GAINDITZEN**



### **3. ERANSKINA Adibide praktikoak:**

#### **1. KASUA) Ikerketarako funtsak biltzen dituen fundazioa**

"AURRERA" Fundazioa 2001ean sortu zen gaixotasun arraro baten kariatara. Helburua funtsak biltzea zen, gaixotasun horri buruzko ikerketa-ildo berriak irekitzeko, pazienteen bizi-kalitatea hobetzeko eta, aldi berean, gaixotasuna ikusarazi eta zabaltzeko.

2020. urtean, Fundazioak ekitaldi batzuk antolatu ditu, sare sozialetan sentsibilizazio-kanpaina bat jarri du abian, eta merchandising-a saldu du Fundazioaren leloarekin, hori guztia ikerketarako funtsak biltzeko helburuarekin.

Era berean, Euskal Herriko Unibertsitateari dohaintza bat egin dio gaixotasun arraro horri buruzko ikerketa-proiektuarekin jarraitzeko, eta osasun-erakunde bati diru-laguntza batzuk eman dizkio, berriemate- eta kontzientziazio-hitzaldiak egin ditzan gaian adituak direnekin.

Orain, ikus dezagun emaitzen kontua, 2020/12/31n:

- Erabiltzaileen ekarpenak: 155.000
- Ekitaldiko soberakinera egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak: 218.000
- Salmentek eta merkataritza-jarduerak ekarri dizkioten beste diru-sarrera batzuk (merchandising-salmenta): 90.000
- Laguntzen gastuak eta beste.
  - Euskal Herriko Unibertsitatearentzako diru-laguntza: 213.000
  - Aditu-hitzaldiak antolatzea: 60.000
- Hornidurak.
  - Merchandising-a erostea (kamisetak, giltzatak, jertseak, motxilak, katiluak, irudiak ...): 70.000
  - Ekitaldietako erosketak (ostalaritza, soinua, materiala, garraioa ...): 35.000
- Langile-gastuak.
  - Kudeatzailea – Arduraduna (langile 1): 33.000
  - Administrazio langileak (langile 1): 25.000
- Jardueraren beste gastu batzuk:
  - Errentamenduak eta kanonak: 3.000
  - Konponketak eta mantenimendua: 200
  - Profesional independenteen zerbitzua (aholkularitza eta auditoria): 2.500
  - Aseguru-primak: 100
  - Bankuetako zerbitzuak: 20
  - Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak: 10.000
  - Hornidurak: 350
  - Beste zerbitzu batzuk: 300
- Ibilgetuaren amortizazioa: 9.000
- Finantza-sarrerak: 1.000





Gainera, Fundazioak 450 euroko ordenagailu eramangarri bat erosi du.

Fundazioak 150.000 euroko funts propioak ditu.

**Galdutze-irabazien kontuaren laburpena:**

<b>A) Eragiketa jarraituak</b>	<b>2020/12/31</b>
1. Jarduera propioaren diru-sarrerak	373.000
2. Salmentak eta merkataritza-jardueretatik datozen beste diru-sarrera batzuk	90.000
3. Laguntzen gastuak eta beste	-273.000
4. Hornidurak	-105.000
5. Langile-gastuak	-58.000
6. Jardueraren beste gastu batzuk	-16.470
7. Ibilgetuaren amortizazioa	-9.000
<b>A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA</b>	<b>1.530</b>
8. Sarrera finantzarioak	1.000
<b>A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA</b>	<b>1.000</b>
<b>A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA</b>	<b>2.530</b>
9. Mozkinen gaineko zergak	0
<b>A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDI-SOBERAKINA</b>	<b>2.530</b>
<b>B) Etendako eragiketak.</b>	<b>0</b>
<b>A.5) Ondare garbia zenbat aldatu den, ekitaldiko soberakinean aitorturik</b>	<b>2.530</b>
<b>C) Zuzenean ondare garbira egotzitako gastuak eta sarrerak:</b>	<b>0</b>
<b>C.1) Zuzenean ondare garbian aitorturiko sarrera eta gastuek ondare garbian eragin duten aldakuntza</b>	<b>0</b>
<b>D) Ekitaldiko soberakinera egindako birsailkapenak</b>	<b>0</b>
<b>D.1) Ekitaldiko soberakinera birsailkapenak direla-eta ondare garbia zenbat aldatu den</b>	<b>0</b>
<b>E) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera eta gastuek ondare garbian eragin dituzten aldakuntzak.</b>	<b>0</b>
<b>F) Irizpide-aldaketengatik egindako doikuntzak</b>	<b>0</b>
<b>G) Akatsengatik egindako doikuntzak</b>	<b>0</b>
<b>H) Fundazioaren zuzkiduran edo gizarte-funtsean izandako aldaketak</b>	<b>0</b>
<b>I) Bestelako bariazioak</b>	<b>0</b>
<b>J) GUZTIZKO EMAITZA, EKITALDIAN ZEHAR ONDARE GARBIA ZENBAT ALDATU DEN</b>	<b>2.530</b>



**1. kasua) Ikus ditzagun informazio-koadro hauek. Bertan azaldu ahal izango dugu nola bete ditugun sarrerak fundazio-xederako erabiltzeko obligazioa eta administrazio-gastuen muga**

Ekitaldia	Emitzen kontuko diru-sarrerak guztira (A)	(-) Oinarrian sartuta ez dauden diru-sarrerak (B)	(-) Diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak diren gastuak (C)	= KALKULU-OINARRIA (E)	Bideratu beharreko gutxienerenta	%	Fundazioaren helburuak gauzatzeko erabiltzeko baliabideak (gastuak eta inbertsioak) (D)	Helburuak betetzeko bideratutako baliabideak aplikatzea				
								2017	2018	2019	2020	Aplikatzeko dagoen zenbatekoa
2017	292.000	0	-102.350	189.650	132.755	70%	104.500	104.500	28.255			28.255,00
2018	350.000	0	-97.500	252.500	176.750	70%	174.250		145.995	30.755		30.755,00
2019	490.000	0	-119.800	370.200	259.140	70%	339.000			308.245		0,00
2020	464.000	0	-115.000	349.000	244.300	70%	302.450				302.450	0,00



Diru-sarrera (B) eta gastu (C) hauek kendu, eta KALKULU-OINARRIA daukagu; XEHETASUNA:

Kontu-zenbakia	Emitzen kontuaren partida	Gastuaren/Sarreraren zenbatekoa	Egozte-irizpidea (%)	Kontzeptua, deskribapena eta motibazioa	2020ko zenbateko kengarria	2019ko zenbateko kengarria
6000001	Merchandising-a erostea	70.000	100%	Kamisetak, giltzatakoak, jertseak, motxilak, katiluak, irudiak ... erostea	70.000	75.000
6000002	Ekitaldietako erosketak	35.000	100%	Ekitaldiak antolatzeko egindako erosketak: ostalaritza, soinua, materiala, garraioa ...	35.000	37.800
6270001	Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	10.000	100%	Sare sozialetan sentsibilizazio-kanpaina egitea	10.000	7.000
				<b>GUZTIRA</b>	<b>115.000</b>	<b>119.800</b>

(D) Ekitaldian aplikatutako baliabideak:

Kontu-zenbakia	Emitzen kontuaren partida	Gastuaren/Sarreraren zenbatekoa	Egozte-irizpidea (%)	Kontzeptua, deskribapena eta motibazioa	2020an aplikaturiko zenbatekoa	2019an aplikaturiko zenbatekoa
6500001	EHUrako diru-laguntzak	213.000	100%	Ikerketarako egindako dohaintza	213.000	255.000
6500001	Hitzaldietarako diru-laguntzak	60.000	100%	Zabalkunderako egindako dohaintza	60.000	55.000
64000001	Gerentearen soldata	33.000	50%	Zuzendaritza kudeatzeko lanak eta kudeaketak	16.500	16.500
64000002	Administrazioko langileen soldata	25.000	50%	Fundazioko administrazio-zereginak	12.500	12.500
<b>A) Helburuak betetzeko gastuak</b>				<b>Guztira</b>	<b>302.000</b>	<b>339.000</b>
2170000	Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	450	100%	Gerentearen ordenagailu eramangarria	450	0
<b>b) Helburuak betetzeko inbertsioak</b>				<b>Guztira</b>	<b>450</b>	<b>0</b>
<b>GUZTIRA (a) + b)</b>					<b>302.450</b>	<b>339.000</b>



## Administrazio-gastuak

Kontu-zenbakia	Emaitzen kontuaren partida	Gastuaren xehetasuna	Egozte-irizpidea (%)	Kontzeptua, deskribapena eta motibazioa	Administrazio-gastuen zenbatekoa
64000001	Gerentearen soldata	33.000	50%	Zuzendaritza kudeatzeko lanak eta kudeaketa-lanak	16.500
64000002	Administrazioko langileen soldata	25.000	50%	Fundazioko administrazio-zereginak	12.500
62100001	Errentamenduak eta kanonak	3.000	100%	Bulegoa alokatzea	3.000
62200001	Konponketa eta mantenimendua	200	100%	Bulegoko aire girotuaren konponketa	200
62300001	Zerbitzu profesional independenteak	1.500	100%	Kontabilitate- eta lege-aholkularitza	1.500
62300002	Zerbitzu profesional independenteak	1.000	100%	Auditoretza	1.000
62500001	Aseguru-primak	100	100%	Bulegoko aseguruak	100
62600001	Bankuetako zerbitzuak	20	100%	Komisio-gastuak	20
62800001	Hornidurak	350	100%	Bulegoko argindarraren eta uraren gastua	350
62900001	Bestelako zerbitzuak	300	100%	Gerentea Bartzelonara joateko bidaia-gastuak eta dieta	300
<b>Administrazio-gastuak guztira</b>					<b>35.470</b>
<b>KALKULU-OINARRIA</b>		<input type="text" value="349.000"/>			
<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<input type="text" value="150.000"/>			

(Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko115/2019 Dekretuko 31 artikulua).

"Administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gainditu kopuru hauetako handiena: funts propioen ehuneko bosta edo fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarreraren ehuneko hogeia.

Emaitzen kontua kalkulatu da kontzeptu guztiak hartuta, behin diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kendu ondoren, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik."

FUNTS PROPIOEN % 5:

KALKULU-OINARRIAREN %20:

Bi zenbateko horietako handiena KALKULU-OINARRIAREN %20 da; beraz, administrazio-gastuak ezin izango dira 69.800 eurotik gorakoak izan.

Administrazio-gastuen muga

Administrazio-gastuak guztira  **EZ DU MUGA GAINDITZEN**



Erakundeak 464.000 euroko diru-sarrerak ditu guztira, hiru bide hauetatik: erabiltzaileen ekarpenetatik; diru-laguntzetatik; eta fundazio-xedearekin zerikusia duen merkataritza-jardueran egindako salmentetatik. Fundazioak, era beran, baditu gastu batzuk ere diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak, bestela ezingo bailuke erabiltzaileen ekarpenik lortu edo merchandising-a saldu. Kasu honetan, gastu hauek egin dira: Fundazioaren logotipoa duen materiala erostea (kamisetak, giltzatak ...), sare sozialetan egin den sentsibilizazio-kanpainaren barruko publizitatea; eta gaixotasun arraroa ikusarazteko ekitaldiak (materiala, soinua, materialen garraioa, ostalaritza ...). Fundazioak gastu horiek egingo ez balitu, jende gutxiagorenganaino iritsiko litzateke eta oihartzun txikiagoa izango luke, diru-ekarpenak lortzeko ahalmenaren kaltetan, inondik ere. Horrela, kontzeptu horiek diru-sarrerak lortzeko beharrezko gastutzat hartzen dira, eta emaitzen kontuko diru-sarrera guztietatik kendu egin behar dira; beraz, bideratu beharreko gutxieneko errenta kalkulatzeko erabiltzen den oinarria murriztu egiten da. Kontuan izan behar da gastu horiek hertsiki lotuta daudela diru-sarrerak lortzearekin; hau da, Fundazioak egiten dituen gastu guztiak ez dira diru-sarrerak lortzeko beharrezko gastutzat hartzen (langileen gastuak, jardueraren beste gastu batzuk ...).

Beraz, lortutako diru-sarrera guztietatik (464.000 euro), 115.000 euro kendu dira, diru-sarrerak lortzeko beharrezko gastuak direlako. Horrela, kalkulu-oinarri bat lortzen da, 349.000 eurokoa, eta xedera bideratu beharreko gutxieneko errenta bat, hau da, oinarriaren % 70 edo 244.300 euro.

Fundazio-xedeak gauzatzeko erabilitako baliabideei dagokienez, zuzenean fundazio-xederako aplikatzen diren gastuak banakatzen edo desglosatzen dira. Fundazio-xedea, kasu honetan, gaixotasun arraroari buruzko ikerketa-ildo berriak irekitzea da -hartara pazienteen bizi-kalitatea hobetearren-, eta, aldi berean, gaixotasuna ikusaraztea eta haren berri zabaltzea. Horretarako erabili diren baliabideak hauek izan dira: ikerketarako dohaintza, gaiaren berri zabaltzeko dohaintza, egindako inbertsioa eta gerentearen eta administrazioko langileen soldata.

Azken bi kontzeptu horietan, egozpen-irizpidea % 50ekoa izan da. Honegatik, hain zuzen ere:

- Begira dezagun uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuan, 31.2.c artikuluan, eta ikus dezagun zer den administrazio-gastu: *“Gerentzia edo kudeaketa edo fundazioaren izenean beste jarduera batzuk egiteko ardura ematen zaien eta fundazioaren zerbitzuan diharduten langileen ordainsariak”*.

Beraz, indarrean dagoen araudiaren arabera, gerentearen soldata administrazio-gastutzat hartu behar da. Fundazio honetan, hala ere, behar bezala justifikatu da gerenteak fundazioaren helburuarekin zuzenean lotutako lanak ere egiten dituela: hitzaldiak ematen ditu gaixotasun arraroarekin duen esperientzia kontatzeko, eta adituekin biltzen da nazioan eta munduan egindako ikerketen emaitzak zuzenean ezagutzeko, hartara hobeto planteatu ahal izateko funtsak biltzeko eta ekartzeko estrategia. Beraz, Fundazioaren egozpen-irizpidea zehazteko, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, gerentearen soldataren % 50 administrazio-gastutzat hartu da, eta beste % 50 helburuak lortzeko erabilitako baliabidetzat, behar bezala justifikatuta.



- Administrazio-lanak egiten dituen pertsonaren soldata egozteari dagokionez, pentsatu da soldataren % 50 zuzenean lotuta dagoela fundazioaren helburuarekin; izan ere, pertsona horren zereginen artean ekitaldiak antolatzea eta hornitzaileak koordinatzea dago, baita merchandising-eko materialaren stocka kudeatzea ere. Soldataren beste % 50a administrazio-gastutzat hartu da, fundazioaren helburuarekin zuzenean lotuta ez dauden zereginak ere egiten baititu: kontabilitatea eramatea, fakturak erregistratzea, auditoretzarako eta aholkularitzarako dokumentazioa kudeatzea, diru-laguntzak kudeatzea, banku-mugimenduak, aseguruak eta Fundazioaren eguneroko kudeaketako gainerako zereginak.

Fundazioaren emaitzen kontuari dagokionez, administrazio-gastuak honako hauek dira: gerentearen eta administrazio langileen soldataren % 50, bulegoaren errentamendua (bulego horretan ez da fundazio-xedearekin lotutako zereginik egiten), bulegoko aire girotuaren konponketa, bulegoaren aseguruak eta urtean zehar sortutako hornidura-gastuak. Era berean, kontabilitate- eta lege-aholkularitzaren gastuak eta auditoretza-gastuak ere sartzen dira, baita komisio bakoitzeko banku-gastua ere. Azkenik, gerenteak hitzaldi bat ematera Bartzelonara egindako bidaia daukagu; bidaia horretako gastuak ere administrazio-gastutzat hartzen dira.

Aipatu dugun 1. artikuluan ezartzen denez, *“Administrazio-gastuen zenbatekoak ezingo du gainditu kopuru hauetako handiena: funts propioen ehuneko bosta edo fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarreraren ehuneko hogeia. Emaitzen kontua kalkulatu da kontzeptu guztiak hartuta, behin diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak kendu ondoren, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik.”*

Horregatik, administrazio-gastuen muga betetzen dela bermatzeko, zenbateko hauetatik handiena hartu behar da kontuan: Funts propioen % 5 ( % 5\* 150.000 = 7.500) edo kalkulatu-oinarriaren % 20 ( % 20\* 349.000 = 69.800). Ondorioz, administrazio-gastuak ezin izango dira 69.800 eurotik gorakoak izan. Kasu honetan 35.470 euro direnez, Fundazioak ez du muga hori gainditu.

Horrekin guztiarekin, ikusten da fundazioaren helburuetara bideratutako baliabideak (gastuak eta inbertsioak) 302.450 euro direla, eta, indarrean dagoen araudia betez, ez direla kontuan hartu ez administrazio-gastuak, ez ibilgetuaren amortizazio-gastuak.

Kontuan hartuta bideratu beharreko gutxieneko errenta 244.300 eurokoa dela eta Fundazioak 302.450 euro bideratu dituela, bete du fundazio-xederako eskatzen den gutxienekoa (uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuko 30. artikuluan dago zehaztuta).



## 2. KASUA: Ondare-fundazioa

"ONDAREA" Fundazioaren helburua irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzea da, premian dauden pertsonei laguntza eta hezkuntza emateko. Fundazio honek 43 milioi euroko ondare garbia du, akzio eta inbertsio-funtsetan inbertitua. Ikus dezagun emaitzen kontua:

1. Dibidenduek emandako diru-sarrera finantzarioak: 2.000.000
2. Baloreak salduz izandako irabaziak: 160.000
3. Baloreak salduz izandako galerak: 350.000
4. "Gorbeia" funtsaren gainbalioa, epe laburreko irabaziak izanik helburua: 2.100.000
5. "Anboto" funtsaren narriadura, epe laburreko irabaziak izanik helburua: 300.000
6. "Aizkorri" funtsaren gainbalioa, asmoa luze irautea izanik: 1.500.000
7. Zorroaren kudeaketaz arduratzen diren langileen kostua: 150.000
8. Zorroak kudeatzeko bulegoa alokatzea: 8.500
9. Zorroak kudeatzeko bulegoaren hornigaiak: 26.500
10. Gizarte-ekintzaz arduratzen diren langileen kostua: 90.000
11. Gerentziako langileen kostua: 42.500
12. Kanpo-auditoretzaren ordainsariak: 12.500
13. Diru-laguntzak: 4.500.000

### Galdututako irabazien kontuaren laburpena:

<b>A) Eragiketa jarraituak</b>	<b>2020/12/31</b>
1. Jarduera propioaren diru-sarrerak	0
2. Salmentak eta merkataritza-jardueretatik datozen beste diru-sarrera batzuk	0
3. Laguntzen gastuak eta beste	-4.500.000
4. Hornidurak	0
5. Langile-gastuak	-282.500
6. Jardueraren beste gastu batzuk	-47.500
7. Ibilgetuaren amortizazioa	0
<b>A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA</b>	<b>-4.830.000</b>
8. Sarrera finantzarioak	2.000.000
9. Finantza-tresnen arrazoizko balioa zenbateraino aldatu den	1.800.000
10. Ondare-tresnak besterentzearen emaitza	-190.000
<b>A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA</b>	<b>3.610.000</b>
<b>A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA</b>	<b>-1.220.000</b>
11. Mozkinen gaineko zergak	0
<b>A.4) ERAGIKETA JARRAITUETATIK DATORREN EKITALDI-SOBERAKINA</b>	<b>-1.220.000</b>
<b>B) Etendako eragiketak.</b>	<b>0</b>
<b>A.5) Ondare garbia zenbat aldatu den, ekitaldiko soberakinean aitorturik</b>	<b>-1.220.000</b>
<b>C) Zuzenean ondare garbira egotzitako gastuak eta sarrerak:</b>	<b>1.500.000</b>
<b>C.1) Zuzenean ondare garbian aitorturiko sarrera eta gastuek ondare garbian eragin duten aldakuntza</b>	<b>1.500.000</b>
<b>D) Ekitaldiko soberakinera egindako birsailkapenak</b>	<b>0</b>



D.1) Ekitaldiko soberakinerako birsailkapenak direla-eta ondare garbia zenbat aldatu den	0
E) Zuzenean ondare garbira egotzitako sarrera eta gastuek ondare garbian eragin dituzten aldakuntzak.	1.500.000
F) Irizpide-aldaketengatik egindako doikuntzak	0
G) Akatsengatik egindako doikuntzak	0
